

LANDABERRI IKASTETXEKO ARAZOARI IRTENBIDEA EMATEKO MOZIOA

Azken txosten geoteknikoaren emaitzak jaso ditugu dagoeneko. Bide horretan, orain, lehenbailehen, egoerari konponbidea ematea dagokio Lasarte-Oriako Udalari. Nahikoa denbora galdu dugu arazoa nork konpondu behar duen argitu nahian, eta, bitartean, Landaberri ikastetxeko eraikinak egoera tamalgarrian jarraitzen du: aldapa ez dago erabilgarri, itoginak eta hezetasun arazo nabarmenak ditu, teilatua oraindik ez da konpondu...

Iritsi den txosten geoteknikoaren arabera, arazoa ez dago ezpondan, aldapan bertan baizik eta bi irtenbide posible hobesten ditu txostenak. Irtenbidea ahalik eta azkarren abian jarri behar da eta arazoa konpontzeko epeak azkartu behar dira.

Egoera horren guztiaren aurrean, Lasarte-Oriako EH Bilduk honako hau betetzea eskatzen dio Udal Batzari:

1. Txosten geoteknikoak hobetsi duen mikropiloteen irtenbidea ahalik eta azkarren abian jartzeko **lanaren proiektua esleitzea.**
2. Proiektua ahalik eta azkarren burutzeko, **beharrezkoak diren baliabide tekniko eta ekonomikoak jartzea.**

Lasarte-Orian, 2019ko abenduan.